


## **Reconversión social y ecológica** Birmoldatze sozial eta ekologikoa



**Florent Marcellesi**  
**Joseba Azkarraga**  
**Mathieu Iriart**

**Ekainak 3 de junio**  
**Bizkaia aretoa (EHU-UPV)**  
**Abandoibarra**  
**Bilbo**  
**10:00-14:00**



bizi! 

**ELA**  
MANU  
ROBLES-ARANGIZ  
INSTITUTUA  
EUSKAL SINDIKATUA

## Egitaraua/Programa

- 10:00. **Aurkezpena / Presentación.** MIKEL NOVAL
- 10:15. **Egungo ereduaren mugak eta aldaketaren beharra / Los límites de modelo actual y la necesidad de cambio.** JOSEBA AZKARRAGA
- 11:15. **Eztabaida / Debate**
- 11:30. **Atsedena / Descanso**
- 11:50. **Ekonomiaren trantsizio ekologikoa / Transición ecológica de la economía.**  
FLORENT MARCELLESI
- 12:50. **Eztabaida / Debate**
- 13:10. **Alternatiben tresna kutxa / Caja de herramientas y alternativas.** MATHIEU IRIART (Bizi!)
- 13:30. **Eztabaida / Debate**
- 13:45. **Ondorioak / Conclusiones**

# Krisia ez da amaituko

Joseba Azkarraga Etxagibel. 2013/11/03 Berria

Batek daki non egongo garen urte bete barru. Atrebentzia dirudi Gabonetan Europa zer izango den aurreratzea. Oraindik nekezagoak dira lau urterako aurreikuspenak, nahiz erakunde guztiak gura duten plan estrategiko argigarria, zentzu pixka bat emate aldera eskuetatik joan zaigun garaiari. Prospektibak, 15-20 urteko epe-mugak alegia, irudi lezake Hollywood-eko gidoi fantastikoa. Baino ezinbestekoak zaizkigu prospektiba eta etorkizun ikuspegi luzea, nolabaiteko begiramen urruna, jakin baitakigu biziko ditugula gertaera transzentalak. Gaurko gizarteari zimenduak urtzerainokoak Spainiari xarma nola.

Badator aro postfossilista, esaterako. Nago gero eta kontzientzia handiagoa dugula, baina kezkagarria da oraindik espazio mental hain gutxi uztea gizadiaren historian inflexioa ekarriko duen energiaren krisiari. Alegia, gaur bizirik diraungun gehienon bizitza eraldatuko duen kolosoari.

Zientzia da: amaitu zen petrolio ugari eta merkeari esker antolaturiko festa ikusgarria. Eta badira oraindik behar bezala jabetu ez diren herri sektoreak, egonean giro; badira itaun airez begiratzen dutenak; badira eszeptikoak; badira oin puntetan aldentzen direnak; badira aurrerapen teknologikoan fede hauskaitza dutenak; badira diotenak «goikoek pentsatuko zuten zer-bait»; badira apokaliptiko oihukatzen diotenak mezulariari, jasanezina zaie pozbide asearen uzkurtzea. Jarrera askok ardatz dute ukazioa. Baita esperantza xaloa ere. Mentalitate magiko eta mitikoaren gaurko ordezkariek ote diren.

Aro postfossilistaren ondorioak? Bi hitzetan: hazkundearen amaiera. Festa alaitu digu beste ezerk ez bezala eta beharbada beste ezerk ez du ahalmen handiagorik airean uzteko sistema ekonomiko globalaren eta merkatu-ekonomia nazionalen zainak. Sistemak

hornikuntza arazo larriak izan ditzake. Nekez ponpatuko du gure metabolismo urbano-industrialari eusteko adinako odol jariorik.

Prozesua hasita dago. Ez dago gaurko krisi finantzarioa ganoraz ulertzerekir erreparatu barik petrolioaren 2008ko prezioari. Hots, zelan haziko da ekonomia erreala, nola mantenduko da kredituak eta horien interesak ordain daitezkeenaren fikzioa, beheraldi geologiko halabeharrezkoan sartu denean ekonomia produktiboaren hauspoa den lehengaia? Kasualitatea ote, PIIGS deiturikoek (Portugal, Irlanda, Italia, Grezia eta Spainia) izatea menpekotasun energetiko biziela Europar Batasunean? Spainarentzat, industria turistikoak urtero ematen dion aberastasunaren adinakoa da petrolioaren urteko faktura. Eta erregaien prezioek gora egingo dute ezinbestean. Biziagotuko da lurra jotzera doan helikoptero baten gisako spanishiar dantza.

Energia gutxiagoko etorkizunak nahitaez dakar desazkunde ekonomikoa. Eta hazi ezean, ezin zorrak ordaindu. Bai, tema gaitezke baliabideak bideratzen zorrak ordaintzera, baina horrek ez du ekarriko zorraren eta BPGaren arteko ratioa hobetzea, dagoeneko nabarmena da. Hori bai, ekarriko du baliabideok masiboki labaintzea ekonomia errealek ekonomia finantzariora, asko dutenei gehiago emanez, pobretuz herritarra, harrotuz ezberdintasunak, eraginez haserrea eta sistemarekiko urrentze psikiko hazkorra (ez bedi eskuin muturrerantz izan).

Soluzio teknologikoek eta mix energetiko berriak garantitsuak izango dira, baina nekez ordezkatuko dute petrolioaren indarra. Gaur-gaurkoz ez dago alternatiba energetikorik eusteko gizarte urbano-industrialaren forma eta eskala fisikoari. Are gutxiago bermatzeko bere tendentzia historiko hazkorra. Kontu simplea da: krisi oraindik larriagoa ote dugun zain.

## JOSEBA AZKARRAGA ETXAGIBEL



**Soziologoa, Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zizentzien Fakultateko irakaslea eta bertako Gizarte Zientzien saileko zuzendaria. Kooperatiba talde berari lotutako Lanki Ikertegiko kidea ere bada. Hainbat liburu udatzi ditu:**

- **Berandu baino lehen. 2009, Alberdania**
- **Euskal Harriak. 2012, Alberdania**

Gero eta gehiago dira arazoaz publikoki hitz egiten hasi diren instituzio ofizialak. Nazioarteko Energiaren Agentziak 2010eko azaroan onartu zuen 2006an gertatu zela petrolio koblentzialaren ekoizpenaren gailurra (anglosaxoiek peak oil deitzen dutena). Negozio munduan ere areagotu dira gogoetak. Politikariak ere badatoz. Gurean, nabarmen hazi da arazoaren gaineko kontzentzia publikoa, baina apenas dagoen kontzentzia publikaturik. Are gutxiago estrategia nazionalik. Iragana gurtzea maite duen herrian, aise nabarmenzen da blaitzen gaituen iragana omentzearen goxoak baduela alde gazia: prospektibarako pentsamendu eta testugintza gutxikoak gara.

Energia gaietan aditueta koa den Pedro Prieto madrildarrari entzun nion, autodeterminazioaren alde ari zela: «Baina, zertarako nahi duzue burujabetza politikoa, euskal gizartearen menpekotasun energetikoa ia erabateko denean?» Zierro, nekez aurki daiteke aro postfosilistaren aurrean gu baino menpekoagoa eta hauskorragoa den herrialde europarrik. Spainia bera hobeto dago, oso txarto egonik ere. Esan beharko zaio madrildarrari estatu egiturarekin hobeto egin dakiokela aurre poshazkundeari. Baina oharrok balio behar liguke: burujabetza juridiko-politikoa eraiki bitartean, premia bizia dugu bestelako burujabetzak herri estrategiaren hesteetan txertatzeko. Errepide orri sozioenergetikoak behar du bere Loiola, behar du bere Aiete.

Mundu guztiak dio erraldoiak direla desafio ekonomikoak, baina ez da egia. Aurre egin beharko zaio ekonomiari aldi berean aurre eginez askoz gehiagori. Lehengai guztiak baitigute agindu eskasiaren igurtzia (peak everything, berriro anglosaxoiek).

Bi aukera daude. Bat, business as usual formularekin jarraitu: kolapso sistemiko kaotikorako bidea. Bi, emergentziaren tamainaz jabetu eta modu tolesgabean egin energia matrize berri eta berritzagarriaren alde; barneratuz energia gutxiagorekin bizi beharko dugula; jakinik energia eredua aldatzeak gizarte eredua aldatzea dakarrela hein handian. Fracking-a bezalako hautu fosilistetan betikotzeak esan nahi du aro berria barneratu ez dela. Eta ahaztu ohi dela petrolioaren gailurrari gasarenak jarraituko diola.

Kolapso handiagoaren atarikoak bizi ditugula diote prospektibako datu zientifiko gehiegik. Eta behar dira neurri eraginkor, azkar, ausart eta are iraultzaileak, eraiki aldera erresilientzia komunitario eta nazionala. Dramatikoegia? Ekonomialari koblentzial gehienek ez zuten burbuilaren eztanda aurreikusi, euren eraikin kontzeptualak arrakala latzak baitzituen oinarrian bertan. Gaurko begiratu hegemonikoak jarraitzen ote duen pitzaduraren luze-zabala haztatu ezin duen itsua izaten.

## **Decálogo para la transformación social y ecológica**

**Florent Marcellesi. 2012/10/30 Bases en Red**

[...] La humanidad, es decir tanto los individuos como las sociedades que las componemos, está ante una encrucijada: puede decidir, al igual que la civilización maya clásica, cerrar los ojos ante el peligro y caminar sin marcha atrás hacia su derrumbe, o puede decidir rebelarse y perdurar dentro de la llamada “supervivencia civilizada de la humanidad”. Para alcanzar este objetivo, es necesario otro modelo de producción y consumo donde reconciliemos, de forma democrática y solidaria, nuestra aspiración individual y colectiva a la buena vida con los límites ecológicos de un planeta finito.

En este camino, planteo y actualizo diez prioridades que esbocé en 2011 hacia aquella transformación ecológica, social, democrática y ética de la sociedad:

1. Establecer los límites y fijar umbrales de recursos y emisiones per capita, así como objetivos de reducción del consumo diferenciando entre países del Norte (contracción, es decir decrecimiento radical de la huella ecológica dentro de los límites ecológicos del Planeta) y del Sur (convergencia, es decir evolución socioecológica hacia un alto bienestar y una baja huella ecológica sin pasar por la casilla del maldesarrollo de los países occi-

denciales).

2. Construir una macroeconomía ecológica que integre las variables ecológicas donde la estabilidad no dependa del crecimiento, donde la productividad del trabajo no sea el factor determinante. En este marco, es central superar definitivamente el PIB como indicador principal de riqueza, por ejemplo a través de indicadores construidos de forma participativa o gracias a debates deliberativos —locales, estatales y europeos— sobre qué es la naturaleza de la riqueza, su cálculo y su circulación.

3. Relocalizar la economía en torno a actividades poco intensivas en energía pero sí en mano de obra y que creen utilidad socioecológica. Es necesario privilegiar las actividades sociales y económicas de circuitos cortos como puede ser las cooperativas y grupos de consumo, que generan actividad a nivel local, sin intermediarios, con huella ecológica baja y con alta capacidad de resiliencia. Al mismo tiempo, la relocalización necesita una coordinación supralocal y europea para garantizar solidaridad interterritorial y políticas eficientes contra problemas transfronterizos y globales.

4. A través de un “New Deal Verde”, invertir masivamente en empleo verde, es decir en puestos de trabajo que garanticen una conversión ecológica de la economía en sectores sostenibles como las energías renovables, agricultura ecológica, rehabilitación de edificios, gestión forestal sostenible, economía de cuidados, artesanía, economía social y solidaria, cooperativas de viviendas, etc. Sin duda, vivir bien en un mundo eco-solidario implicará una contracción para los sectores intensivos en energía fósil y/o especulación financiera y/o perjudiciales para un mundo pacífico (industria manufacturera, sector automovilístico, pesca industrial, bancos y seguros, industria armamentística, etc.), lo cual supone desarrollar una reconversión planificada y participada de las personas trabajadoras hacia los sectores antes mencionados.

5. Hacer un uso masivo de la reducción de la jornada laboral y del reparto del trabajo, incluyendo el de los cuidados. En este sentido, la propuesta de las 21 horas permite vincular reivindicaciones históricas del movimiento obrero y sindical con las del movimiento ecologista al afirmar que una semana laboral más corta puede ayudarnos al mismo tiempo a proteger el planeta, aumentar la justicia social y el bienestar de la sociedad, y construir una economía próspera sin crecimiento.

6. Redistribuir la riqueza a través de una renta máxima, una renta básica de ciudadanía y una fiscalidad sobre los capitales y los recursos naturales. En un planeta finito, hace falta una doble dinámica en torno a una «estrategia de máximos» de lucha contra la riqueza en las clases que sobreconsumen y una «estrategia de mínimos» de lucha contra la miseria social y ambiental para las clases pobres y que infraconsumen. Para hacerla posible, necesitamos plantear una reforma profunda del sistema fiscal donde, además de bajar la fiscalidad sobre el trabajo, paga quién más tenga y más contamine o utilice espacio ambiental.

7. Convertir la “banca ética” en norma para el sector financiero y retomar el control democrático de la mo-

da. Cualquier banco, sea público o privado, no puede invertir en actividades perjudiciales para el medio ambiente o las personas, como puede ser por ejemplo la fabricación de armas. Además, las monedas locales, complementarias al euro, son una pieza fundamental para reforzar el tejido económico local y aumentar el poder de control ciudadano sobre la economía.

8. Desmantelar la lógica social del consumismo educando para “vivir mejor con menos” regulando la publicidad comercial (reducción de su presencia en los espacios y medios públicos y creación de un órgano de control independiente). La educación en valores y llamada verde es fundamental para cambiar nuestras mentalidades y revertir la crisis ética hacia otra relación respetuosa con nuestro entorno y el resto de seres vivos.

9. Reestructurar nuestras ciudades y territorios hacia la autosuficiencia energética y la soberanía alimentaria. Supone construir “ciudades en transición” que piensan a escala humana y local, con huertos urbanos y donde el peatón y la bici son el centro de la movilidad sostenible, y por otro lado, un campo donde la agricultura convencional vuelva a ser la agricultura ecológica, capaz de producir localmente en cantidad suficiente productos de temporada y sanos para consumo local.

10. Poner en marcha una democracia participativa como instrumento vertebrador de una transición social y ecológica exitosa. De hecho, la democracia moderna tiene una deuda latente con la ecología política y con su lucha por extender la autonomía personal y la solidaridad colectiva en el espacio (solidaridad transnacional), en el tiempo (solidaridad transgeneracional) y al conjunto de la naturaleza (solidaridad biocéntrica e interespecie). Sobre todo, esta democracia tiene que integrar en sus procesos algunos aspectos que, además de ampliar nuestros círculos de solidaridad, son centrales para la transición hacia una supervivencia civilizada de la especie humana: la cuestión de la autolimitación, la representación de los sin voz, la gobernanza glocal y la capacidad de responder a la urgencia ecológica.

## FLORENT MARCELLESI



**Florent Marcellesi (Angers, Francia, 1979), es un activista ecológista y investigador que reside desde el año 2004 en España. Teórico de la ecología política y cercano a los movimientos alterglobalización, conjuga sus trabajo de investigación con una intensa actividad en el movimiento verde vasco, español, francés y europeo. Último libro escrito:**

- **Adios al crecimiento. 2013, El Viejo Topo**